

Kirol arloko euskarazko materialen eskasia dela eta, "Kirola Euskaraz" planaren Gipuzkoako programaren barruan, Debarroko udalek oinarrizko kirol-materialak euskaraz sortzeko bekak jarri dituzte martxan. Ondorengo hauek dira XVIII. edizio honen oinarriak:

1. BEKEN EZAUGARRIAK

1.1. Beken helburuak

XVIII. edizio honen helburua arlo bateko fitxa didaktikoak sortzea da. Aurten, ziklismoa da gaia.

Fitxa hauek eskola-kirolean, heziketa fisikoa, klubetan, eta gimnasioetan dabilzan teknikari eta irakasleei zuzendu nahi dizkiegu.

ZIKLISMOA

I ATALA: TEORIA

Ziklismoaren historia.
Aurrekariak eta gaur eguneko egoera.
Egitura federatiboak eta bestelakoak.
Ziklismoa eta bere motak.

Natura eremukoak:
Ziklokrosa.

Mendi bizikleta:
Raid, dual, jaitsierak eta orientazioa.

Errepidea:
Lineako etapak, ordupekoak (taldeka eta bakarka) eta krono-igoerak.

Pista:
Keirin, jazarpena, kanporaketa,...

Bestelakoak:
Monozikloa, tandem, trizikloa eta kirol egokitua, ...
Ziklismoaren teknika eta taktika.
Bakarkako teknika eta taktika
Taldekako teknika eta taktika.

II ATALA: PRAKTIKOA.

Ziklismoaren kirol hastapena.
Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen mailaketa.
Adinaren araberako hastapen ereduaren edukien antolaketa.
Proposatutako saioak.
Bakarkako jarduerak.
Oinarrizko jarduerak.
Trebetasun aurreratuko jarduerak.
Kolaborazio hutseko jarduerak.
Bikoteka.
Taldeka.
Oposizio eta kolaborazio jarduerak.

1.2. Fitxen ezaugarriak

Fitxak DIN A-5 neurrikoak izango dira, alde bietatik idatziak eta beharrezkoak diren marrazkiekin hornituak. Paperean eta CD-an entregatu beharko dira. Bekaren sortzaileen eta beka hauek eskuratzen dituztenen artean erabakiko dute inprimategiko sistema informatikoeekin konpatiblea izateko, zein testu-tratamendurako programa eta nola erabili beharko duten.

1.3. Diru-zenbatekoa.

Beka bakoitzak 4000 euroko ordainsaria izango du

1.4. Iraupena.

Lana egiteko epea beka adjudikatzen denetik hasita lau hilabetekoa izango da.

2. ESKEGILEAK

Edozeinek eska dezake beka, baina kontuan eduki behar da ez dela zuzeneko itzulpenik onartuko. Eskegile bakoitza nahi beste bekataraz aurkez daiteke

3. ESKABIDEAK

Interesatuak, Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzura (San Martin plaza, 20570 - Bergara) bidali beharko dituzte eskabideak, era honetan:

Sobre haundi batean, azalean KIROL MATERIALAK EUSKARAZ SORTZEKO BEKA (XVIII. edizioa) izenburua jarrita, honako hauek bidaliko dira:

- 3.1. Fitxen aurkibideak.
- 3.2. Hiru fitxa, bat teorikoa eta bi praktikoak.
- 3.3. Sobre txikiagoa, itxia, egin dituen fitxetan jarri den goiburua bera eramango duena eta barruan eskegilearen curriculum vitae izango duena.
- 3.4. Fitxak egiteko kontsultatuko lukeen bibliografia.

Eskaerak aurkezteko azken eguna 2008ko urtarrilak 18a, izango da.

4. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA.

Ebaluaketa-batzorde bat osatuko da aurkeztutako eskariak aztertu eta adjudikazio-proposamena egiteko.

Ebaluaketa-batzordea Gipuzkoako "Kirola Euskaraz"eko lan-mahaiko ordezkariak, Debarroko Euskara eta Kirol teknikariak eta arlo bakoitzeko adituek osatuko dute.

Aurkeztutako lanen arteko aldea argi ikusten ez denean hartuko da kontuan curriculum vitae; bestela ez da kontuan hartuko.

- Elkarrizketa. Aurreko puntuak kontuan hartuta puntuazioan alde txikia balego, elkarrizketa egingo litzaieke maila beretsua azaldu dutenei. (Bost puntu emango zaizkio, gehienez.)

Beka hutsik geratu ahal izango da, epaimahaiaren iritziz aurkeztutako proposamenei maila egokirik agertzen ez badute.

Eskegileek, beka eskatze hutsagatik, Ebaluaketa-batzordearen ebazpenaren aurkako edonolako egintza judicial edo estrajudiciali uko egiten diote.

Bekaren adjudikazio-hartzaileak bekaren onarpena idatziz adierazi beharko du, adjudikazio egunetik hasita 7 eguneko epean.

5. LANAREN AURKEZPENA ETA ORDAINTZEKO MODUA.

Fitxak hizkuntza aldetik egoki eta zuzen, argitaratzeko moduan, aurkeztu beharko dira. Epaimahaiak fitxak zuzendu beharra ikusiko balu, bekadunari aukera emango litzaioke zuzentzeko. Bigarren azterketa batean ere egokitzat jo ezean, zuzentzeko kostua bekatik kenduko litzaioke. Edozein modutan, bekaren antolatzaileak prest izango dira arlo honetan bekadunaren lana orientatzeko eta behar duen aholkularitza emateko.

Lana bi zatitan aurkeztuko da, zati bakoitzean fitxakopuruen erdia emanez.

Zati bakoitza entregatzen denetik hasita, 30 eguneko epean Ebaluaketa-batzordeak aztertu eta, hala balegokio, onarpena emango dio.

Ordainketa ere bi zatitan egingo da, lanaren erdi bakoitza jaso eta Ebaluaketa batzordeak onarpena ematen duenetik hasita astebeteko epean. Lehenengo ordainketa guztiaren %40koa izango da eta azkena, gainontzeko %60koa. Kopuruok bere aurrezki-kontuan sartuko zaizkio egileari.

Ebaluaketa Batzordeak lanaren zatiren bat onartuko ez balu, 21 eguneko epea emango dio egileari zuzenketak egin ditzan, eta bigarren aldia ere onartu ezean, lana bertan behera utzi eta zati horri zegokionaren erdia ordainduko litzaioke.

Lanak sor litzakeen edozein eratako gastuak bekadunaren kontu izango dira.

Lana entregatzeko azken epea baino beranduago entregatuz gero, asteko 30 euro kenduko litzaizkioke.

6.- USTIAPEN EKONOMIKORAKO ESKUBIDEAK

Egileak bere lanaren ustiapen ekonomikorako eskubideak DEBARROKO UDALEI utziko dizkie, egile orori dagokion eskubide morala izan ezik. Beraz, Debarroko udalek liburua argitaratzeko eskubidea izango dute, eta kasu honetan bekadunak uko egingo dio egile-eskubideak jasotzeari.

DEBARROKO UDALEK eskubide hau erabili nahi badute, horren berri eman beharko diote egileari lana behin betiko jaso eta 6 hilabeteko epean, eta bi urteko epearen barruan argitaratu beharko dute. Epe hau igaro ondoren egileak bere kontura argitaratu ahal izango du, beti ere jasotako bekaren aipamena eginez.



Debarroko Euskera
eta Kirol Zerbitzuak

 **kirola**
euskaraz
www.kirolaeuskaraz.net



KIROL MATERIALAK EUSKARAZ SORTZEKO BEKA

2008



XVIII EDIZIOA

DEBARROKO EUSKARA
ETA KIROL ZERBITZUAK